



Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren behin-behineko ebazpena, adinaren arrazoiarengatik eskola-orduak murrizteko 65 urtetik gorako karrerako funtzionario irakasleentzako deialdia ebaztekoa dena.

Hezkuntza Saileko langileak kudeatzeko zuzendariaren 2025eko irailaren 1eko ebazpenaren bidez adinaren arrazoiarengatik eskola-orduak murrizteko eskatzeko prozedura deitu zen.

Aipatutako ebazpenean adierazten denaren arabera, honako baldintza hauek bete behar dira eskola-orduen murrizketa onartzeko:

- *65 urte beteta dituzten karrerako irakasle funtzionarioak*
- *Erretiroa hartu arte zerbitzu-eginkizunik edo lanaldimurrizketarik ez izate*
- *Beste jarduera batzuetan aritzeagatik (proiektuak, EGA/AKA, jantokia, zuzendaritza-karguak...) edo osasun-arrazoiengatik irakastorduak ez murriztea erretiroa hartu arte*
- *Murrizketa-orduak zuzendaritzaren eskura jarriko dira.*
- *Irakastorduak murrizteko baimena automatikoki luzatuko da, eta baldintzak emakidaren aldi osoan betetzearen baldintzapean egongo da*

Ebazpen horren, seigarren atalean adierazten da hurrengo hau: *“Eskabideak aztertu ondoren, langileak kudeatzeko zuzendariaren behin-behineko Ebazpena argitaratuko da”*

2025eko urriaren 31ra arte aurkeztutako eskabideak aztertu ondoren, eta kontuan izanda, azaroaren 19ko 381/2024 Dekretua, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituenak, 11. artikuluan xedatutakoaren arabera,

Resolución provisional del director de Gestión de Personal del Departamento de Educación por la que se resuelve la convocatoria de reducción de horas lectivas por razón de edad para el personal funcionario de carrera docente a partir de 65 años de edad.

Mediante Resolución de 1 de septiembre de 2025, del director de gestión de personal del Departamento de Educación, se estableció el procedimiento de solicitud de reducción de horas lectivas por razón de edad.

Conforme a lo establecido en la misma, los requisitos para la concesión de la reducción de horas lectivas son:

- *Ser personal funcionario de carrera docente que tenga 65 años cumplidos*
- *No tener concedida ninguna comisión de servicios, ni una reducción de jornada hasta la fecha de su jubilación*
- *Que no tengan reducción de horas lectivas por dedicación a otras actividades (proyectos, EGA/AKA, comedor, cargos directivos...), ni por razones de salud hasta la fecha de su jubilación.*
- *Las horas de reducción se pondrán a disposición de la dirección del centro.*
- *La autorización de esta reducción de horas lectivas se prorrogará automáticamente, y quedará condicionada al cumplimiento de los requisitos durante todo el período de concesión*

En el apartado sexto de esa resolución se determinaba que: *“Una vez analizadas las solicitudes se procederá a la publicación de la Resolución provisional del director de gestión de personal”*.

Una vez analizadas las solicitudes presentadas hasta el 31 de octubre de 2025 y considerando lo dispuesto en el artículo 11 del Decreto 381/2024, de 19 de noviembre por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Educación;



EBATZI DUT

RESUELVO

Lehenengoa.- I. Eranskinean adierazten diren pertsonen, onartzea eskola-orduen murrizketa.

Primero. - Conceder a las personas que figuran en el anexo I de la presente resolución, una reducción de horas lectivas.

Bigarrena.- Administrazioak ofizioz ezeztatu ahal izango du eskola-orduen murrizketa, interesdunetako batek deialdiko baldintzaren bat betetzen ez duela antzematen duenean.

Segundo. La Administración podrá revocar de oficio la concesión de la reducción de horas lectivas en el momento en el que aprecie que alguna de las personas interesadas no cumple con alguno de los requisitos de la convocatoria.

Hirugarrena.- Irakastorduak murrizteko baimena duten langileei irakaskuntzaz kanpoko eginkizunak esleituko zaizkie, kasu bakoitzean esleitutako lanaldi osoa osatu arte. Honako eginkizun hauek esleituko dira: zeregin osagarrietan laguntzea, proiektu-orduak, jantokiko arduraduna, epaimahaian parte hartzea eta hizkuntza-eskola ofizialetako azterketa ofizialak zuzentzea, etab. Horrek ez du inola ere ekarriko inolako zereginik egin gabe orduak erabat murriztea.

Tercero. Al personal al que se le autorice la reducción de horas lectivas, se le asignarán funciones no docentes hasta completar la jornada total asignada en cada caso. Se asignarán funciones tales como: apoyo de tareas auxiliares, horas de proyectos, responsable de comedor, formar parte de los tribunales y corregir exámenes oficiales en las escuelas oficiales de idiomas, etc. En ningún caso supondrá una reducción completa de horas sin realizar ninguna tarea.

Laugarrena.- II. Eranskinean adierazten diren pertsonen, eskola-orduak murrizteko egindako eskaerak ez onartzea, bertan adierazten den arrazoiagatik.

Cuarto. - Desestimar las solicitudes de reducción de horas lectivas de las personas que figuran en el anexo II de la presente resolución, por el motivo indicado en el mismo.

Alegazioak

Alegaciones

Epea.- Deialdi hau argitaratu zuen 2025eko irailaren 1eko Ebazpena xedatutakoaren arabera, I. eranskinan argitaratutako behin-behineko zerrenden aurka interesdunek alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte 2025eko azaroaren 19ra arte barne. Behin-behineko ebazpen honen aurkako erreklamazioak *Hezigunea* ingurunean horretarako prestatutako **aplikazioaren bidez** egingo dira. Erreklamazio horiek egitezko akatsengatik edo akats materialengatik bakarrik egin ahal izango dira, eta **ez** edukizko akatsengatik.

Plazo.- Con arreglo a lo dispuesto en la Resolución de 1 de septiembre de 2025 por la que se convoca la presente convocatoria, contra el listado provisional publicad en el Anexo I los interesados podrán presentar alegaciones hasta el día 19 de noviembre de 2025 incluido. Las reclamaciones contra esta Resolución provisional se realizarán mediante el **formulario habilitado** para ello en el entorno de *Hezigunea*. Dichas reclamaciones solo podrán realizarse frente a errores de hecho o materiales, **no** de fondo.

Vitoria-Gasteizen, 2025eko azaroaren 5n
En Vitoria-Gasteiz, a 5 de noviembre de 2025

UNAI NIETO MARIJUAN
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA
DIRECTOR DE GESTIÓN DE PERSONAL



I ERANSKINA / ANEXO I

NOMBRE Y APELLIDOS	DNI	CONCESION
ETXABURU GANDIAGA, MARIA AMAIA	***6166*	1/2 JORNADA
LLANOS FERNANDEZ, MARIA AMAYA	***9019*	1/2 JORNADA
MALATSETXEBARRIA ULAZIA, MIREN ARGIÑE	***6057*	1/3 JORNADA
MUÑOZ REGUERAS, MARIA JESUS	***6155*	1/2 JORNADA
OJINAGA ANASAGASTI, MIREN GOTZONE	***5289*	1/3 JORNADA